



Akelarre. Nestor Barrenetxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Txelu Etxebarria:

«Ez dot adituten zelan izan leiken abertzalea eta erderaz berba egin»



1999ko maiatza. 13. zkia. 125 pzt.

Otxarkoagako Kaldera ⇌ Mikel Zabala ⇌ Langileen eskubideak



Argazki hau 1924ko San Isidro egunekoa da. Urte horretan eta Primo de Rivera diktadurapean, Begoña eta Deustuko udalak desagertu egin ziren Bilbok iruntsita.

Begoñako San Isidro jai eguna

San Isidro eguna jai handia zan Begoñan eta hainbat ospakizun egozan. Egun horretan Begoñako baseritarren sindikatoak, bolanderak banatuten ebazan baserri eta etxeetatik jaurtiteko

Goizean prozesiñoa egiten zan, sindikatutik (gaur egun Zabalbide kalean platano arbol handiak dagozen lekutik gitxi gora behera) Begoñako Elizaraino. San Isidroren irudia, gaur egun desagertuta dagoan Begoña elizako altare batean egoan.

Banderaduna aurretik joaten zan, (sasoi horretan Fidel Elorriaga, Goikoetxe baserrikoa) eta gero jagole uniformatuak eta txistularia (Elola txistularia)

Gero Begoñako plazan aureskua dantzaten zan (Fausto Lekue Artalandio baserrikoa), eta gero bazkaria egiten zan sindikatoan eta erromeria udaletxeko plazan.

Argazkia, Anton Larrazabalek itxi deusku, baita honen azalpenak emon ere. Argazkian ikusten diren irudi eroiak hiru honeek dira: eskumakoa Ignacio Begoña, erdikoa Nicasio Zabala Jose Maria Urkijoren txaleteko lorazaina eta atzeko ezker aldekoa, Antonino Larrazabal Garaizar baserrikoa, honeek hirurok Afrikako gerratik etorri barriak zirean.

Hor ikusten da ere ezker aldean tipo berezi bat, egurrezko sarda bategaz, labeko santua zeukan goitizenez, eta dirudienez, izen hau, Orueta Bidean egoan laba batean bizi zalako jator kon.

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa: 94 473 54 48
e-posta:
berton@mail.com

ZUZENDARIA:
Aitziber Laskibar

ERREDAKZIOA:
Unai Cuevas, Arrate Diez, Urtzi Urrutikoetxea, Zuriñe Uriarte.

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi, Joseba Barrenetxea, Benito Fiz


KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso Perez, Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Edurne Basozabal, Idoia Irastorza, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola, Igor Zorrozueta, Iñaki Aurrekoetxea, Joseba Zelaia.

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoe-txea, Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.000

A U R K I B I D E A



▼ Euskararen datuak	4	▼ Mahatsberriak	16
▼ Bapo! Errezetak	5	▼ Erreportaia: Langilea bere eskubideen alde borrokan	19
▼ Gurasoak taldea	6	▼ Behetik gora: eskolaren txokoa	22
▼ Begia: Hileko argazkia	7	▼ Bota ba: Kirolak	24
▼ Begoña eta euskerea	8	▼ Bideak: Mikel Zabala	26
▼ Otxarkoagako Kaldera	10	▼ Begizorrotza: Komikia	28
▼ Bakarka: Txelu Etxebarria	12	▼ Bidean gora: Mendi ibilbideak	29
▼ Berbetan: Inkesta	15	▼ Badatoz: Agenda eta horoskopoa	30

Aupa Mahatsorriok!

Uden gaoz idxe-idxe, loratan dao Matzerri osoa, balkoietako tiestoak geidxen baten. Eta tiestoakaz batera mallukidxe ta babak bere bai. Eta gaztetxoak guztidxe udiegaz akordau bere ez direz egingo ze hareintzat udie dato-rra esaminek datozela esan gure dau. Ta ze eingou ba?

Txelu Etxebarriari ez yakoz asko akordaten esaminek, harek bastante bierra ein ddau, danerik egin bere! Ta oingoan omenajie ein bidotzie koruko lagunek, baie hareik bakarrik ez leuskidxe ein biherko, ze harek egin ditzuzen guztiakaz Euskal-erri erdidxe ein bier leuskidxo. Aupa Txelu! Hori de hori Mahatsorridxe, hori! Musikie, jantzan, kantetan... Danerik!

Baie musike kontuen gaztiek bere badatoz gogo-gaz, Otxarkoagan Kalderan dabilte aspadi-xen enredaten, ta hareik bere eingo deitxuez eurenak. Ta ganera eleziñoak, baie neuri eztozie ardure, ze munizipaletan ez dot botako Begoñen atzera ayuntamentue eukin arte. Ze Bilbon gugez baka-rrik akortan direz baserri-xek botateko orduen.

Firmaute: Mahatsorri's power

M
 F
 T
 O
 K
 A
 K

II. Soziolinguistikazko mapako datuak

Eusko Jaurlaritzak argitaratu berri duen II. Soziolinguistikazko mapan hainbat datu ematen dira euskalerri-tarron hizkuntz-gaitasunaz. Mahatserriko auzoetako 1996ko datuak ekarri ditugu hona. Hizkuntz-gaitasuna auzoka eta Mahatserrri osoan. Nor edo nork kalkuluren bat egin gura badu, kalkuladora hartu eta ekin.

auzoa	Biztanleria	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Partzialki euskaldun berriak	Partzialki erdaldunduak	Guztiz erdaldunduak	Erdaldun zaharrak
Santutxu	35710	1333 3,73%	778 2,18%	3312 9,27%	6417 17,97%	422 1,18%	233 0,65%	23215 65,01%
Txurdinaga	16365	527 3,22%	417 2,55%	1661 10,15%	3399 20,77%	222 1,36%	88 0,54%	10051 61,42%
Uribarri	14964	396 2,65%	209 1,40%	1433 9,58%	2684 17,94%	137 0,92%	55 0,37%	10050 67,16%
Zurbaran	12897	545 4,23%	245 1,90%	1258 9,75%	2613 20,26%	153 1,19%	91 0,71%	7992 61,97%
Otxarkoaga	12285	104 0,85%	48 0,39%	511 4,16%	1346 10,96%	53 0,43%	36 0,29%	10187 82,92%
Castaños	7677	424 5,52%	183 2,38%	800 10,42%	1436 18,71%	159 2,07%	69 0,90%	4606 60,00%
Solokoetxe	7657	408 5,33%	184 2,40%	699 9,13%	1503 19,63%	137 1,79%	67 0,88%	4659 60,85%
Begoña	5998	447 7,45%	191 3,18%	630 10,50%	1322 22,04%	114 1,90%	43 0,72%	3251 54,20%
Bolueta	4816	132 2,74%	52 1,08%	400 8,31%	811 16,84%	43 0,89%	27 0,56%	3351 69,58%
Iturribide	4258	308 7,23%	124 2,91%	438 10,29%	803 18,86%	90 2,11%	37 0,87%	2458 57,73%
Matiko	3803	165 4,34%	49 1,29%	422 11,10%	664 17,46%	34 0,89%	21 0,55%	2448 64,37%
Arabella	1898	55 2,90%	22 1,16%	162 8,54%	383 20,18%	21 1,11%	7 0,37%	1248 65,75%
Ciudad Jardin	797	30 3,76%	30 3,76%	77 9,66%	152 19,07%	12 1,51%	7 0,88%	489 61,36%
Guztira	129125	4875 3,78%	2532 1,96%	11804 9,14%	23535 18,23%	1597 1,24%	781 0,60%	84013 65,06%

Iturria: II. Soziolinguistikazko mapa. Eusko Jaurlaritzak. 1999.

hartu bertón etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertón aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerria, 48004

Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia: Solairua:

Herria: Herrialdea: Posta Kodea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito): _ _ _ / _ _ _ / _ _ _

Sinadura

errezetak

ETXEAN EGINIKO TXOKOLATEZKO IRABIATUA

Osaquiak:

Txokolatezko izozkia (2 koilarakada haundi)

Esne hotza (litro lauderna)

Azukrea (2 koilarakada txiki)

Montatutako esnegaina


Txokolatezko siropea

Pajita bat



Batidora erabiltzeko egokia den ontzi batean izozkia, azukrea eta esnea bota. Ondoren, batidorarekin irabiatu. Irabiatu gustoko lodiera lortu arte. Behin irabiatua egin eta gero, edalontzi luze batetara isurtzen da eta montatutako esnegaina eta txokolatezko siropea botatzen zaio goiko aldean.

Aholku bat: pajitarekin edan



GURASOAK TALDEA

Gazteek jasaten duten errepresioaren aurka eta gazteen eta beren senideen eskubideen defentsan diharduen taldea

1997ko abenduan Bilbon izandako 22 gazteren atxiloketaren ondoren, horien gurasoak ilegaltasun eta atxiloketen egoera salatzeko asmoz bildu ziren eta Gurasoak izeneko taldea osatu zuten. Atxiloketen nondik norakoak, trasladoak, inkomunikazio egoerak Entzutegi Nazionalean, eta beste hainbat injustizi aztertzeke eta salatzeke bildu ziren hain zuzen. Euren seme-alaben eskubideen alde borrokatzeke Bizkaiko hainbat aita eta ama bat egin zuten.

Nafarroan horrelako ekimena jadanik aurrera zihonan, beraz, Bizkaian ere erakundea sortzea eta legalizatzea erabaki zuten.

Gurasoak taldearen funtziorik nabarmenena atxilotuen zein bere senideei asistentzia juridikoa eta giza asistentzia eskaintzea da batez ere. Talde honetako kideak astean behin biltzen dira Santutxun eta bertara Bizkai osoko gurasoak hurbiltzen dira. Denen artean errekurso posible guztiak mobilizatzea erabakitzen dute, era honetan, atxilotutako gurasoekin zein abokatu-ekin kontaktuan jarritz. Taldeko kideek bizi izandako esperientziarekin laguntza eskaintzen zaie gurasoei, eta bide batez, atxiloketen muntaia polizialen izaera erakusten zaio gizarteari.

“Gurasoak taldearen funtzioa bide ezberdinen bitartez gure seme-alaben giza eskubideen defentsan aritzea da. Atxiloketan, epaiketan, eta aske geratu arte, etengabeko eskubideen urraketa salatzen dihardugu Gurasoak-eko kideok”

LEGE ANTITERRORISTA EZABATU

Santutxuko lokal batean biltzen dira Bizkaiko Gurasoak Koordinadorakoak eta hilean behin beste herrialdeetako Koordinadoreekin bat egiten dute. Berauen aldarrikapenen artean honakoak aipa ditzakegu:

Lege Antiterroristaren ezabaketa aldarrikatzen dute, gazteen eskubideak urratzeke besterik ez bai-

tute balio. Gazteen ustezko errugabetasun eskubidea aldarrikatzen dute, eskubide hau bai komunikabideek zein poliziek guztiz ahaztu egiten dute. Eta azkenik, muntaia polizialekin amaitzea eskatzen dute gauza guztien ginetik.

Gurasoak taldearen ustetan poliziaren errepresioa ez dago gazteria guztiari zuzenduta, baizik eta Euskal Herriko gazteria konkretu bati. Errepresioa jasaten duen gazteria hau egonezin sozial eta politikokoak dituen gazteria da hain zuzen, ezker abertzaleko gazteria.

Orain gutxi Jon Ander Couceirok jasandako jipoi buruz galdetzean, Gurasoak taldeak aurretik Jon Anderrek Barakaldon jasandako Ertzaintzaren jipoiere ere hitz egin ziguten. Haietako etengabe ari dira Santutxuko gazteriak jasaten duen bortxa egoera salatzen, eta Jon Anderri gertatutakoa jipoi hauen guztien ondorioa da eta horrelakoak ekidin eta ezagutarazi behar dira.

NEURRI POLITIKOAK APLIKATU

Gurasoak taldeak neurri politikoen aplikazioa eskatzen du eraso hauekin behin betiko amaitzeko. Egoera honen soluziobide bakarra, Euskal Herri-

ko gatazka politikoaren barnean bakearen bidean, sumarioak artxibatzea litzakete.

Gurasoak taldearen ardura momentu honetan 300 gazte baino gehiagorentzako fiskalaren eskaera exajeratu eta neurrigabekoei aurre egitea da. Eskera hauek benetako muntaia polizialekin oinarrituta daude eta epaiketak fartsa eta antzezlanak besterik ez dira. “Gurasoak-eko kideaok aukera izan dugu epaiketa fartsa hauek bertara joanez zuzenean ikusi eta entzuteko, eta helburu bakarra euskal gazteria kriminalizatzea dela uste dugu zalantzarik gabe.”

“Gurasoak taldearen funtzioa bide ezberdinen bitartez gure seme-alaben giza eskubideen defentsan aritzea da. Atxiloketan, epaiketan, eta aske geratu arte, etengabeko eskubideen urraketa salatzen dihardugu Gurasoak-eko kideok”



Hiru babarrun jateagatik horrenbeste neke, pena, erdi ustelik aurkitzen dute Forjariaren barrena, gure kontura egiten dute nagusiek nahi dutena gure lepotik gizentzen gure bere patrikara dena

Forjarien Kanta, (Herrikoia)

Oraingoan be Begoña inguruko baserrien kontu honegaz gatorkizuez.
Artikulu hau burutu ahal izateko ezinbestekoa izan zaigu
Txelu Etxebarriaren laguntza eta Santutxuko Mintza Taldeak
argitaratutako liburua

∞ E. Basozabal, I. Gaminde, I. Irastorza, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

Begoña eta Euskerea

BEGOÑAN EGONEKO BASERRIAK (III)




**GALLAGA TXAKO-
LINDEGIA**
Zabalbidetik Matalo-
boseko sarreran
egoan.

MARI TXAKOLINDEGIA

Txakolindegi hau Zabalbide pilotalekuaren aurrez
aurre egoan.

ORMAETXE BASERRIA

Zabalbide kalearen 273.zenba-
kian egoan.




ITURRIAGA BASERRIA

"Organos" lantegitik gaur egungo Santa Klara
kalera bi estrata egozan. Bide erdian baserri
hau egoan.

"PALACIO ENCANTADO"

Gaur egungo Torre Gorostizaga eta Cocherito
de Bilbao kaleak gurutzatzen direan ezkerreko
bazterrean egoan kokaturik.




REKALDE BASERRIA

Etxebarria etxealde erdian, jolastokia dagoan tokian egoan. Boni Rekalde jaunak erabiltzen zuen baina jabea
Luis Briñas zan.

BASARRATE BASERRIA

Basarrate landaren izena bertan egoan baserri honetatik harta da. Geroago "Campa del muerto" izenarekin ere
ezagutzen dogu, Boluetatik Begoñako eleizara bidean hildakoei egiten zitzaien agurra zala eta.




Atzeko partean, Briñasen Baseria
Aurreko partean, Ategorri Txakolindegia

BRIÑASEN BASERRIA

Gaur egungo Iturriaga kalean egoan,
"Palacio Encantado"aren aurrez
aurre. Boni Rekalde bizi izan zan bertan.

ATEGORRI TXAKOLINDEGIA

Torre Gorostizaga eta Travesia Iturriaga
kaleen artean egoan.



Basarrate Plaza

ARRIETA TXAKOLINDEGIA

Briñas ikastetxearen ondoan egon
zan.

ETXEANDIA BASERRIA

Luis Briñas eskolaren patioa dago-
an toki berean egoan.

OTXARKOAGAKO KALDERA



hainbat musika talderen entsaialeku

Leku txikia den arren, makina bat musika talderen entsaialeku da Kaldera izenez ezagutzen den txokoa. Gaur egun bederatzitaude erabiltzen duten arren, hogeitaka talde daude izen emanda, zorte hori noiz izango duten zain, gure auzoetan dagoen lokal falta agerian utziz.

↔ Jaione Letamendia

Otxarkoagako Auzo Etxearena da Kaldera izenez ezagutzen den lokala. Lokal hau azokaren gainean eta eliza ondoan aurkitzen da; Auzo Etxearen azpiko aldean. Iain Auzo Etxea sortu zenetik funtzionatzen du auzoko eta inguruko musikarien entsaialeku bezala. Haseran Auzo Etxe barruan entsaiatzen zuten oraindik bertan irauten duten Los Golfos eta Aita Santua (lehen Su Santidad) taldeek. Baina urtebetera-edo Kalderara bidali zituzten, bere musika beste gela guztietan entzuten zen eta. Badirudi beraiek ere gusturago sentitzen direla horrela. "Gil-

dirudi hain leku txikian 7-8 kidek osatutakoo talde batek entsaia dezakeenik. Kantaria saltoka hasiz gero, besteak baztertu behar izaten dute, oinen bat zapaltzerik nahi ez badute. Talde bakoitzarentzat armairu txiki bat ere bada-go.

Txurdinaga-Begoñako Udaltegi berria egin zutenean bertan entsaiatzeko tokiren bat utziko zieten esperantza zuten hainbat taldeetako kideek: "behar bada inozo samarrak garelako edo, adi egon ginen, musika entsaiotarako lokal bat egokituko zutela esan baitziguten,

"garbi ikusi dugu sevillana dantzak ikasi nahi badituzu ez duzula inongo arazorik izango, baina musika talde bat aurrera atera nahi baduzu, nahiko oztopo izango duzu"

tzak Auzo Etxean hartu eta utzi eta bertako ordutegia errespetatu behar bada ere, honek lana geure erara egiteko aukera ematen digu", adierazi digute Kalderan entsaiatzen duten taldekideek. Auzo Etxeko taldeen Koordinadoran ere parte hartzen dute, nahiz eta bakarren bat joaten den bertara.

Gaur egun OMS, Treedents, Los Golfos, Pottoka, Aita Santua, Nitxo, Mr. Sandman, Oh! No, eta Ikaria taldeek entsaiatzen dute; musika estiloak ere, taldeak adina. Baina Aita Santua taldekoek diotenez, "hogeitaka talde daude hemen entsaiatu nahian izena emanda, baina guztiok ikasle edo langileak garenez arratsalde iluntze parteko orduak nahi izaten ditugu eta ez dago guztiontzat lekurik".

Sartu gara bertan Aita Santua taldekoekin eta gezurra

baina hotsgabetzeko erabiltzen diren plakak gela erdian bakarrik jarri zituzten; beste erdia paretan arrunta da. Beraz, hori eta ezer ez edukitzea, berdin berdina da", adierazi zuten musikariek.

Oraindik gehiegi ezagutzen ez duten arren, Udalak duen egitasmo baten berri ere eman digute. Lokala handitzeko asmoa omen dute eleiza atariraino doan arkupe osoa hartuz, bertan eszenatoki bat jarriz kanpora zabaltzeko aukera emango lukeelarik. "Ez dakigu ideia hau aurreratua duten ala ez, baina oso ondo egongo litzateke, soinu aldetik hobekuntzak eginez gero noski, gaur egun hemen ezer grabatzea pentsatzerik ere ez baitago. Otxarkoagan behintzat garbi ikusi dugu sevillana dantzak ikasi nahi badituzu ez duzula inongo arazorik izango, baina musika talde bat aurrera atera nahi badu-

zu, nahiko oztopo izango duzu", esan ziguten kexu.

Baina dena txarra inoiz ez denez izaten, beren ekipo berriarekin oso gustura ikusi ditugu lehengoarekin konparatuta oso ona baita. Bateria ere Udalak emandako dirulaguntzaz erosi dute. Talde bakoitzak hilean 2.000 pezetako kuota bat

ordaintzen du. Dirulaguntzetaz galdetutakoan ere ez dute aurpegi onegia jarri Aita Santua taldekoek, urtean urtean bera egiten omen du eta: "Lehen gehiegi jaso-tzen ez bagenuen ere, BilboRock sortu zutenetik na-barmen egin dute behera musikataldeentza-



"hogeitaka talde daude hemen entsaiatu nahian izena emanda, baina ez dago guztientzat lekurik"

zaigu. Gure ideia oraindik gehiegi ez badugu garatu ere, zera da, hemengo talde guztiok La Merceden jotzea eta Kaldera izenean maketa bat grabatzea".

Ez dute uste eskaera hau betetzeko zailtasun handiegi-rik izango duenik Udalak, eta nahiko ilusionatuta daude ideia honekin. Ez balute lortuko, zailtasunak izango dituztela ziur dauden arren, maketa hori beste nonbait grabatu ahal izateko dirulaguntza eskatzeko asmoa azaldu dute.



"hemengo talde guztiok La Merceden jotzea eta Kaldera izenean maketa bat grabatzea bururatu zaigu"

**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!**



SAAK

ANGEL

HARATEGIA - URDAITEGIA




Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

ekilore

Iturriaga, 92

Santutxu

JOSE LUIS ETXEBARRIA "TXELU"



Jose Luis Etxebarria "Txelu" danaren ganetik eta batez ere Begoñako abertzaletzat hartzen dau bere burua. Oso pertsona ezaguna da euskal folkloarearen munduan dantzaria, dantza biltzaile eta irakasle, txistulari, metalezko txistuaren asmatzailea eta atzo arte abesbatza sortzaile eta zuzendari. Txelu, dantzaria dela dinoen arren, gizon polifazetikoa da eta harrotasunez esaten dau autodidakta izan dala bai musika arloan, bai umetan galdutako euskerea berreskuratzen eta hori dana egin dauala gure herriaren alde. Honengatik guztiagatik Txurdinagako Matsorri abesbatzako bere lagunak omenaldi xumea egin gura deutsoe Bagilaren 6an. Bejon deizula Txelu!

✉ Igor Irastorza

B.: Txelu zu nongoa zara?

Tx.: Ni bertokoa naiz, begoñatarra, eta ez ni bakarrik, nire asabak, birraitaitak,...hemen danok; aitaren aldetik danok gara Begoñakoak. Nire aita izan zan Madariaga txakolinakoa eta nire ama Garate baserrikoa zan, ointxe bota daben goiko baserri horretakoa, Veracruz ikasketxe ondoan egoan baserrikoa izan zan ama eta ni sindikato deritzen etxean jaio nintzen 1925. urtean.

B.: Zelakoa zan umetan ezagutu zenduan Begoña?

Tx.:Garai hartan Begoña dana baserriarra izan zan, baserri betetik egon zan dana, txakolinak eta. Nik hainbat mahats zapaldute nago umetan. Bilbotar guztiak etorten ziran hona txakolinetara, oso ospetsuak izan ziran Begoñako txakolinak, garai haretan ospe handikoak izan ziran eta baserriarrentzako ere txakolina oso garrantzitsua izan zan hortik ateratzen ebelako dirua gero ugazaberi alogera ordainduteko.

B.: Eta gaur egun baino euskaldunagoa, ezta?

Tx.: Bai, bai garai haretan baserri guztietan egiten zan euskeraz, euskera nagusi zan Begoñan, baina gerra heldu zan eta gerra osteko urteetan dana aldatu zan: euskera debekatu eben, pisuak egiten hasi ziran eta kanpotarrek barre egiten euskuen euskeraz egitearren. Gu



oso gazteak, umeak gintzezan eta konplexua eta beldurra hartu gendun. Halan joan zan euskera desgertzen Begoñan, neuk ere euskera

galdu egin neban baina gero urteak berreskuratu egin dot ostabere. Nik herri hau maite dot eta ez dot adituten zelan izan leiken abertzailea eta erderaz berba egin.

B.: Zelakoa izan zan gerra garaia Begoñan, zelan bizi zenduezan gerra garaiko urteak?

Tx.: Nik gerra garaia ondo gogoratzen dot. Ni ume gudaria izan nintzan, gudariakaz ibiltzen nintzan ni Begoña osotik baserretik baserrira eskopetak batzen, ehiza egiteko eskopetak batzen. Halan irabazi behar genduan gerra guk alemanen aurka, ehiza egiteko eskopetakaz. Urte gogorak izan ziran harek, ondino akordaten jataz gudari bat Begoñatik gertu hiltzen ebenean Begoñako batzokian egiten zirean omenaldiak. Gero fatxak sartu zireanean Begoñako batzuk igesi egin eben gurdiakaz hemetik Santander aldera eta besteok Begoñako tunelean ezkutatu gintzezan dana amaitu arte. Egun batean, beste mutikoakaz nengoala, jakin genduan Santo Domingon moroak egoazela eta haraino joan gintzezan moroak

"Garai haretan baserri guztietan egiten zan euskeraz, euskera nagusi zan Begoñan, baina gerra heldu zan eta gerra osteko urteetan dana aldatu zan"

ikusten. Urte gogorak izan ziran , bai! Gero gudarien afusilamenduak egon ziran Bilbo osotik eta guk Begoñako eskolatik ikusten genduzan gudariak afusilatzerara eroaten ebezan kotxe zelularrak. Ondo dekot hori burutan.

B.: Zu dantzaria izan zara, noiz eta non hasi ziran dantzan egiten?

Tx.: Sei urte neukazanean, Bigarren errepublikaren garaian, aitzak batzokira eroan ninduan, batzokia sindikato ondoan egoan eta han hasi nintzan dantzak ikasten. Hasieratik gustatu jatan dantzan egitea eta zortzi urteagaz Euskadiko lehendakaria izango zanari, Jose Antonio Agirrerri, aureskua dantzatu neutson bere ezkontza egunean Begoñako basilikan.

B.: Zelakoak izan ziran euskal dantza-taldeen has-tapenak Francoren garaian?

Tx.: Bada Franco garaian ezin zan ezelako talderik sortu eta dana egin behar zan baimendutako erakunde edo taldeen babespean, halan da ze guk "Coral de Bilbao" deritzon horren babespean sortu genduan dantza taldea 1943. urtean. Gero Bilboko Koraletik "Coral del Ensanche"ra joan gintzezan eta handik Errekaldera, Errekaldeko elizara. 1947. urtean Dindirri taldea sortu zan eta Gazte-lerkura, Uribarri-

ra, joan gintzezan Teatro Ayalako zuzendaria zenak babestuta. Han egon nintzan dantzari eta zuzendari. Garai hartako taldeak dantza taldeak baino gehiago ziran, gure herriaren ohiturei eutsi eta frankismoari aurre egiteko guneak ziran. Erresistentzia guneak zirean. Gazte-

B.: Baina han zengozala beste taldeak sortzen lagunduten ere ibili ziran, ezta?

Tx.: Bai, Karmeloko Gaztedi taldearen sorreran ere esku hartu neban. 1959. urtean Galdakaoko Andramari ta-Idea sortu zanean zuzendaria izan nintzan, Axangizen bere bai,...leku askotan ibili nintzan sortzen zirean taldeei lagunduten.

B.: Dantzari ezeze dantza biltzaile eta irakaslea ere izan ziran?

Tx.: Bai, beti egon naz oso kezkatuta Euskal Herriko kulturagaz eta herriz herri, batzutan baserri baserri ere, joaten nintzan Bizkaiko dantzak eta batzen. 1969.urtean "Danzas vizcaínas" ize-neko liburua idatzi neban. Bizkaiko dantzak era-kusten ibili nintzan Euskal Herri osoko dantza talderi, beno Iparraldera ezin izan nintzan egundo bere joan baimenik emon ez eustielako. Tuteratik eta Iruñetik ere deitu eusten Bizkaiko dantzak irakastera joan neiten. Iruñean adibidez Udalekoa zan *Duguna* taldekoeri irakatsi neutsezan Bizkaiko dantzak.

B.: Iruñeko Duguna taldeari irakasten zengozala gauza bitxi bat gertatu jatzun, ezta?

Tx.: Bai nik pena handia neukan ezin izan nintzalako egundo ere Iparraldera joan dantzan egitera eta orduan Iruñean nengoala Dugu-



Eskuma aldean dagoana Txelu da Lehendakaria izango zan Agirrerren ezkontza egunean

"Zortzi urteagaz Euskadiko lehendakaria izango zanari, Jose Antonio Agirrerri, aureskua dantzatu neutson bere ezkontza egunean Begoñako basilikan"



jo ta ke
Otxarkoaga
euskaldundu arte!
Pa... Yak baditu alternatibak
demokratikoak noski!!



GABILTZA
E.K.M.
PRENTSA BANAKETA

na taldekoak eurakaz Donibane Lohitzunera joaten gonbidatu euskuen emaztea eta biok. Guk orduan, paperik eta ez genduala esan geuntzen, harek ez zala behar erantzun eta eurakaz joan gintzezan Donibane Lohitzunera autobusean. Dantzaldia frontoian izan zan eta Duguna taldeagaz batera Donibane Lohitzuneko taldeak egin eban dantza. Honek ikurrinagaz urten eben -pentsa egizu zer zan ha guretzat- eta *agintariena* dantza egin ebenean eta dantzariak ikurrinaren azpian makurtu zira-nean emaztea eta biok negarrez hasi gin-tzezan 'hunkituta. Hori ikusita frontoian egoazan gizon batzuk hurbildu jakuzan eta hain emozionatuta gengoazanez ea nongoak gintzezan itaundu euskuen, eurakaz berba egin ta ostean joan egin zirean eta handik minutu batzuetara ostabere etorri zirean eta ea Jose Antonio Agirre Lehendakaria ezagutu gura gendun itaundu euskuen.

B.: Orduan zer egin zenduen?

Tx.: Zer egin genduan? Ba Duguna taldeko fatxak konturatu barik Agirre Lehendakaria ikusten joan, jakina. Bere etxean egon gintzezan, oso ondo portatu zan geugaz eta nik bere ezkontza egunean aureskua dantzatu

neutsola esan neutsanean bera harrituta geratu zan. Egundo ere ez dogu ahaztuko emazteak eta biok egun hori. Handik urtebetera edo hil egin zan, 1960. urtean.

B.: Euskal folkloreak munduan arlo gehienak joratu dozuz dantzari ezeze Txistularia ere zarelako

Tx.: Bai, ni dantzan ibiltzen nintzanez txistua jotzen ikasi gura neban orduan Boni txistulariari itaundu

neutsen eta bere azalpenak entzun eta ostean nire kabuz ikasi neban musika eta txistua jotzen, gauza biak batera.

B.: Eta metalezko txistua asmatu ere egin zenduan, zelan jazo zan hori?

Tx.: Txistu tradizionala kanpoa gogor baina barnea bigun deuken egurrakaz (kerezta eta ezpela adibidez) egiten izan da betidanik.



bera eukan mutur batetik bestera, ez zan konikoa bertokoen modukoa; orduan niri bururatu jatan neuk ere egin neinkeela txistu borobila. Halan egin neban, fabrikara joan, metalezko hodi bat hartu eta metalezko txistua sortu neban. Txistu borobil honek txistu tradizionalak daukon moduko soinua eukan. Gero plastikozkoak ere egin neban. Gaur egungo txistuak pasta berezi bategaz egiten dabez eta konikoa izaten jarraiten dabe txistu tradizionalak bezala.

B.: Nekaezina zarelara emoten dau, zertan zabilta orain?

Tx.: 1987. urtean Garaizarko Matso-riak abesbatza sortu gendun eta horretan ibili naz zuzendari orain gitxi arte. Zuzendaritza utzi behar izan dot partiturak irakurtzeko ikusmen arazoak dodazelako, dana dala oraindino laguntzen deu.tset.

Geroago Gineako ebano arbolaren egurrakaz egiten hasi zan eta horregaitik ordutik, baltzak dira txistuak. Txistuak, gainera, kono itxura dauko horregaitik da gatza fabrikatzeko. Ni sarritan ibili nintzan txistu bat egin gurean baina oso gatza egiten jatan. Egund batean Plaza Barriko tabernetan Bonigaz poteoan nengoala, lagun batek Ibizatik ekarritako egurrezko txistu luze eta borobila erakutsi eustan, Ha txistua lodiera ber-

I N K E S T A

Zer Eragin Du Zugan Udaberriak?

EÑAUT
(Txurdinaga)

"Nigan ez du eraginik edo behintzat ez dut nabari. Egun onak egitean pixka bat alaiago jartzen naiz, baina hala ere denbora ez da asko hobetu".



ASIER
(Santutxu)

"Udaberria heldu bezain laster, odola irakiten hasten zait uda hurbil dagoela pentsatuz".



ADE
(Santutxu)

"Niri udaberriak ezinegon arraroak eta alaitasun berezi bat sortzen dizkit. Ez dakit, baina beroagatik edo, asko gustatzen zait".



NATALIA
(Txurdinaga)

"Nire ustez eguraldia berdin-berdina da. Baina udaberriaren beroa hasten da eta oporrak hurbiltzen dira".



ARANTZA
(Etxebarri)

"Niretzat ez da ezer berezia. Gauza on bakkarra ikusten diot: tenperatura. Bestetik, azterketak eta urduritasunak ekartzen ditu".



IÑAKI
(Santutxu)

"Niri landareek alergía ematen didate, baina hala ere udaberria asko gustatzen zait".



AINARA
(Txurdinaga)

"Udaberria heltzerakoan poz-positik jartzen naiz, ikasteko gogoak kentzen zaizkit eta ondo pasatzeko gogoak etortzen zait".



ANTXOKA
(Burtzeña)

"Negu partea latza izan da baina udaberriak bizitza alaitu egin dit. Askotan, lanpetuta zabiltzala kalera atera eta egun ederra ikustera-koan, arazoak ez zaizkizu konpontzen baina alaiago egiten diezu aurre".





MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak



Koloma hau hiriko altzari berrien parte da.

Kontserbatorioko ikasleen gurasoek kontrol ekonomiko gehiago eskatzen dute

Bilboko Kontserbatorioko ikasleen gurasoen elkarteak, zentruko diru kontuetan parte hartu ahal izatea eskatzen du organismoaren aurrekontua (200 milioikoa aurten) kontrolatu asmoz. Gurasoen elkarteak, irakasleek eta Musika Eskolako zuzendaritzak osatutako batzorde ekonomiko bat eskatzen du. Ia zazpiehun familia ordezkatzeko dituen elkarteak, soldata igoera arbitrario eta "hatzamarrez" hautatutako lanpostuak gertatu ez daitezeko komisiyo mixto baten ezarpena defendatzen du. Elkarteko bozeramaileek, gaur egungo gerentziaren hautaketa prozesua kritikatu dute eta Udalarari aurreko urteetako arazoak erreplikatu ez daitezela eskatu diote.

Pibote berria Karmelo kalean

Bilboko udalak zutabe, koloma edota pibote berria ezarri du Karmelo kalean. Aurretik, bazegoen antzeko beste bat oraingoaren parean baina hura kendu eta berria ezarri dute Udaleko langileek. Koloma hau estuago da, baina betetzen duen zerbitzua bera: kartel edota informazio orrien kokapena.

Miraflores-eko eraikin bati sua eman zioten

Ezezagun batzuk su eman zioten Mirafloreseko gainean kokaturik dagoen eraikin bati. Orain dela bost urtetik hona edifizioa Udalaren jabetzaren parte da, hala ere, urte hauetan abandonaturik egon da. Gogoratu beharra dago, bere kokapen egokia dela eta (Mirafloreseko gainean, Bolueta eta Atxuri arteko bide erdian) etorkizunerako HIESdun gaixozentzako egoitza bat egin nahi zutela bertan.

Baina kokapen honi esker ere, okupatua izan da azken urteotan eta jendeak lo egiteko erabili izan du. Urte hauetan, eraikinaren gaikuntza bilatu nahi izan bada ere Udalaren aldetik ez da ezer egin.

Gazte bat lapurtua eta jipoitua Boluetan

29 urteko gazte bat Bolueta inguruko lubeta batean aurkitu zuten kolpepe bete. Gazteak azaldu zuenez, bi gaztek amildegitik behera bota zuten jipoitu eta 20.00. pezeta lapurtu ondoren. Gertaera Indalecio Prieto (Miraflores eta Santutxu lotzen dituen kalean) kale inguruan gertatu zen. Kaltetuak adierazi zuenez, ijitu arrazako bi gaztek gainean zeraman diru guztia emateko eskatu zioten. Gazteak aurre egin zien baina gorputz guztian kolpeak jaso eta gero 20.000 pezeta kendu zizkieten. Jarraian amildegian behera bota zuten. Gertaeraz jabetu ondoren, Gurutze Gorriak amildegian aurkitu zuen gaztea. Aurkitzeko momentuan, traumatismo ugari zituen gorputz guztian zehar. Hala ere, gau bat Basurtun igaro ondoren medikuen alta jaso zuen.

Gazte bi larriki zaurituta moto istripu batean

Hamazazpi urteko gazte bi larriki zaurituta atera ziren, Zumalakarregi eta Enrique Ibarreta kaleen arteko gurutzean izandako moto istripu batean (Txurdinagarekin lotzen duen zubian). Bikoteak hiriaren erdialderako norabidea zeraman eta bat-batean gidariak motorraren kontrola galdu eta espaloian zegoen farola jo zuen. Txoke bortitzak, gazte biak metro batzuetara jaurti zituen. Istripuaren ondorioz, gazte bat Basurtuko ospitalean pronostiko oso larriarekin ingresatu zuten. Bestearen zauriak, aldiz, larritasun gutxiagoak ziren nahiz eta Gurutzetako eritetxera eraman behar izan zuten.

"Unión Begoñesa" eraberritzen ari dira

Basarraten dauden "Unión Begoñesa"-ko "etxe merkeek" itxura berria azalduko dute urtebete barru inguru. Lanen kostea 150 milioikoa izango da, batez ere fatxadak konpondu eta teilatuak aldatuko direlarik. Gogoratu beharra dago 1927an eraiki zirela eta harezkeror denbora luzea igaro dela. Bestetik, auzokideen elkarteak presidentek esan duenez, orain arte fatxadetan egon den mortairua kenduko dute eta berri bat jarriko dute. Honekin batera eta teilatuari dagokionez, teila guztiak altxatuko dituzte oihaltzako asfaltikoa jartzeko. Fatxadek, hurrengo kolore eta kolore berdeak azalduko dituzte obrak bukatutakoan. Lanak, Abesa Construcciones enpresak burutuko ditu 12-13 hilabeteren buruan.



Etxebizitza hauek estilo neoeuskaldunekoak dira.

Otxarkoaga auzo pobreenen artean



Otxarkoagako langabezi eta alfabetizatze ezaren zifrak oso altuak dira

Espainiar estatuko Sustapen Ministeritzak egindako ikerketa baten azalduenez, Bilboko 9 auzo estatuko 370 pobreenen artean aurkitzen dira. Horietariko bat Otxarkoaga da. Otxarkoagan 14.029 biztanle bizi dira eta ikasketak gabeko portzentaia %21ekoa da. Estatuko Ministeritza honek egin duen ikerketan aintzat hartu diren aldagaiak honakoak izan dira: langabezia, ikasketarik gabeko biztanlegoa eta etxebizitzaren gabezia.

Bestetik, aipatzekoa da, nahiz eta auzo honetako jende guztia egoera hain eskasean ez bizi, etxebizitzarik handienak 52 metro karratu dituela. Auzoko familien elkartetik adierazi dutenez: "Otxarkoaga oso gaizki eraiki zen, bakarrik 18 hilabetetan. Gainera, udalak ez du jakin kudeatzen, hiritartzea oso geldoa izan baita eta gazteei etxebizitza bat eskuratzea galderaz baitaie."

Droga saltzen zuen emakume bat Otxarkoagan atxilotua



Otxarkoaga auzoan, ere, droga salmenta arazo larria da

55 urteko emakume bat gartzelaratu zuten Otxarkoagako etxebizitza batean droga saltzeagatik. Emakumeak, inguruko institutu eta ikastetxeetako gazteei haxisa saltzen zien. Poliziaren ekintza irakasle batzuek jarritako kexen ondorioz hasi zen. Hauek ikusi zuteenez, beren ikasleetako batzuek drogak kontsumitzen zituzten.

Polizien lehenengo azterketek, 20 gazte inguruk auzoko etxebizitza batean droga erosten zutela ondorioztatu zuten. Informazio hau egiaztatu ondoren, poliziak etxebizitza arakatu eta bertako jabea atxilotu zuten osasun publikoaren kontrako delitu salaketa baten pean. Pisua arakaterakoan, poliziak sei gramoko dosi txikitari banatutako 1.100 gramo hachís inkautatu zituen. Atxilotuak, 65 dosi baino gehiago saltzen zituen egunero, eta diruaz gain urrezko artikulua ere onartzen zituen. Gero, urrezko artikulua,

auzoan saltzen zituelarik. Honetaz gain, droga manipulatu eta pisatzeko aparailuak eta 2 milioitan baloraturiko 50 bitxi inguru eta ia bi milioi zituen aurrezki-libreta bat aurkitu zituzten.

Esan beharra dago, 55 urteko emakume honek bazituela aurretiko polizialak eraso baten ondorioz.

NEKROBOLILLA

ARAUAK

- ✦ Norbaitek asmatzean legokeen potearen erdia beretzat izango da, beste erdia Agusi bidaliko diogu.
- ✦ Batek baino gehiagok asmatzen bada, saria zati berdinetan partituko da.
- ✦ Apostu bakoitza egiteak 100pzta balio du, baina... Jada ipinita dagoen pertsonaia batengatik apostu egin nahi bada, 100pzta gehiago ordaindu beharko da, hauxe da, pertsonaia bat aukeratzeko duen lehenak 100pzta ordainduko ditu, bigarrenak 200, hirugarrenak 300, eta abar. Honekin zera lortu nahi da: pertsona asko apustu bera ez egitea

088 Kuadrilaren ekimen berri bat da, azaroan martxan jarri zena.

Koadrilakidea den Agustin Almaraz presoarentzat dirua biltzeko modu berri eta morboso da hau. Parte hartzea erreza da: maiteen duzun pertsonaia famatuaren edo hiltzeko puntu gehien duen pertsonaia ospetsuaren alde postura egin eta ... hasi otoi-tzean. Jada sari bi banatu dira.

Nekrobolilla hau Kaiku tabernan dago eta apostu bakoitza 100 pzta.koa da.

Langilea, bere eskubideen alde borrokan

Hego Euskal Herrian egiten diren kontratuen %2,6 dira bakarrik mugagabeak

Maiatzaren lehena, hau da, langilearen eguna, igaro berri denean eta Maiatzaren 21eko greba orokorra dela eta, egunotako elkarrizketa gaia bihurtu da sindikatu ezberdinek aldarrikatzen dituzten proposamen edo aldaketak. Denon bizi baldintzak hobetzeko helburuarekin, lan banaketa eta soldata soziala dira planteatzen diren bi aldarrikapen, beste batzuen artean.



⇒ Zuriñe Uriarte

Langabezia da gaur egungo gizartean aurki dezakegun arazo larrienetako bat. Izan ere, Bizkaian bakarrik, biztanleriaren %20 langabezian dago, gazteak eta emakumeak izanik langabezi tasa altuenak pairatzen ditugunak. Orain dela bi urte, biztanleria gaztearen ia erdia langabezian zegoen, eta emakume kopuruaren laurden bat langabetua zen.

Gauzak horrela, eta zenbaki hauek jaisteko asmoarekin batera, Euskal Herriaren ekonomia egokitu eta bideratu nahian, hainbat sindikatuk eta alderdi politikok, zein erakunde eta taldek, bere egin dituzte azken hilabeteotan zenbait errebindikazio: 35 orduko lanaldiak, soldata soziala eta errentako etxebizitza publikoak.

LAN BANAKETA

Azken bi hamarkadetan enplegu kopuruak ez du gora egin, eta honen ondorioz, beharrezkoa ikusten da gaur egungo 38 orduko lanaldiak 35 orduko bilakatzea. Neurri honen ondorioa argia izango litzateke: 66.000 lanpostu sortuko lirateke horrela.

Aldarrikapen honekin batera, era berean, beste zenbait neurriren ezarpenak lanpostuak sortzen lagunduko

luke: aparteko lanorduak kentzea eta jubilazioak aurreratzea.

Kontutan izanik Hego Euskal Herrian urte batean egindako aparteko lanorduak edo ordu estrak 28 milioi baino gehiago direla, hauen murrizketak 20.000 lanpostu berri sortuko litzuzke berehala.

Era berean, jubilazio aurreratuak, 60 urteko langileak jubilatzea suposatuko luke, eskubiderik galdu gabe. Neurri honekin beste 18.000 pertsonak izango lukete aukera lanpostu bat bereganatzeko.

Neurri hauek praktikara eramango balira, langabeziaren erdiarekin bukatuko litzatekeela kalkulatu da.

SOLDATA SOZIALA

Duintasunezko bizitza edonork izan dezan, eta lan banaketa

osagarri gisa, soldata soziala planteiatzen da. Soldata soziala 68.064 pezetatakoa izango litzateke, eta hau kolektiborik zigortuenei zuzenduko litzateke, hau da, emakume eta gazteriarri.

Gauzak horrela, inolako diru sarrerarik ez duenarentzat, hilean 68.040 pezetako soldata-ematea jarriko litzateke martxan. Honez gain, horren azpitiko diru

Azken bi hamarkadetan enplegu kopuruak ez du gora egin, eta honen ondorioz, beharrezkoa ikusten da gaur egungo 38 orduko lanaldiak 35 ordutakoetan bilakatzea.



*emakumeok arlo
produktiboan
sartu egin gara,
baina bigarren
mailako posizio
batean*

sarrera dutenei, horretarainoko luzagarria emango litzaieke.

ERRENTAKO ETXEBIZITZA SOZIALA

Etxebizitza duina izateko eskubidea edonork duen arren, aski dira baliabide ekonomikoen ondorioz, hau ez dutenak. Bien bitartean, Hego Euskal Herrian ia 128.000 etxebizitza hutsik aurkitzen dira. Honen ondorioz, eta Santutxun bertan gertatu berri denez, hutsik dauden etxebizitzak okupatzea bilakatu da irtenbide.

Halere, eta gerora begira, edonork etxebizitza duin bat izateko eskubidearen bete-

ALDARRIKAPENAK

1.- 35 lanordu:

Asteko lanaldia 35 ordura ekartzea.
66.000 lanpostu sortuko litrateke horrela.

2.- Soldata soziala:

Inolako diru sarrerarik ez duenarentzat, hilean 68.040 pta.ko soldata sortzea.

3.- Errentako etxebizitza publikoa:

Etxebizitzak erosi, eraiki eta egokitzea.

tzea emateko, bestelako proposamen bat luzatzen da: errentan edo alokairuan dauden

etxebizitzen parke publikoa sortzeko, etxebizitzak erosi, eraiki eta egokitzea. Horretara-



ko, beharrezkoa litzateke etxebizitza sozialen babespen plan bat bultzatzea eta udalek parte hartzea.

EMAKUMEA ETA LAN MUNDUA

Emakumeoi dagokigunez, Hego Euskal Herrian milioi bat emakume baino gehiago gara. Milioi

LANGABEZIA HEGO E. H.-N



Europak bi halako langabezia du Hego Euskal Herriak (%20 bitartean).

Bizkaia da herrialde zigortuena (%25eko langabezia); Nafarroa zigor arinena jasaten duena (%11-14ko langabezia).

Langabezi tasa larrienak:

Gazteak	%42a	1996an
Emakumeak	%24,3	1997ko
		3. hiruhilabetea

horren



Iñigo Azkona

%26 etxetik kanpo lan egitea lortu badu ere, hau da, merkatu laboralean sartu bada ere, oraindik ere asko dira etxean lan egiten dutenak, 335.000 emakume inguru.

Gauzak horrela, langabetuen kopurua %10ekoa da soilik, merkatu laboralean sartzea lortzen ez duten emakumeen gehiengo batek, etxea aurrera eramaten egiten baitu lan.

Hau horrela izatearen arrazoia historikoki plano pribatuan kokatuta egon izatearena da, plano honetan gizatearen erreprodukzioaren ardura beteaz.

Bitartean, eta ahal izan dugun edo utzi diguten heinean, emakumeok arlo produktiboan sartu egin gara, baina bigarren mailako posizio batean: soldata baxuagoak, baldintza eskaseko kontratupean eta sozialki okerren kokatuta dauden sektoretan lan egiten,...

Horregatik, lan banaketa, soldata soziala eta alokairuzko etxebizitza sozialen aldarrikapenak emakumeon egoera aldatu eta hobetuko luke, berdintasunean eta duina den lanpodtuak eskuratzeko aukera zabalduko bailuke horrek.


Haur matrikulazioa, Hizkuntz Eredua eta Normalizazioa.

Datorren ikasturtera begira gure eskualdeko ikastetxeetan bi eta hiru urteko haurren matrikulazioa bukatuta dago, jadanik. Datu kualitatibo eta kuantitatiboak badaude. Aurrean ikusirik, emaitza hauen hausnarketa gisa aipamen orokor batzuk plazara daitezke baina guztien ganean hauxe azaltzen da nagusi: euskal ereduetan matrikulazioaren etengabeko gorakada mantentzen da.



Euskal erduei (B eta D, hain zuzen) begirada botatzen badiegu eredu hauek historian zehar izandako bilakaeraren lekuko bihurtzen gara: Bilbon, orain dela 15-18 urte, D ereduarekin ausartzen zirenak gutxi ziren, B ereduaren aritzeko beldur gutxiago zegoen. A eredu oraindik eskatuena izaten zen. Gaur egun, berriz, A eredu desagertzen doa, B ereduak mantentzen edota D bihurtzen ari dira, eta D eredu nagusia bilakatu ari da.

Gizartea garaiekin batera aldatuz doa. Garai batean Bilbok inmigratio handia jasan zuen. Orduko egoera politikoak ere, ez zuen laguntzen. Urteak pasatu dira, giza-mugimendu hauek apaldu egin dira. Kanpotik etorritakoen seme-alabak hemen jaio edo hazi egin dira. Euskaltasuna beldurrik gabe erakutsi daiteke, euskal kultura gero eta berreskuratuagoa dago, euskal munduak bere presentzia eta eremua badauka, garbia eta definitua. Gizartea prozesu honetaz jabetu egin da. Gaur egun bi eta Hiru urteko seme-alabak dituzten asko hasierako B eredu eta aintzinako Ikastoletan ibilitako gurasoak dira, asko. Haien eskola garaian jasotakoa eta gizartearen garapenagatik xurgatutako



Aurten B eredu eskeintzen hasiko da

euskal sentiera eta bizipenak haien umeentzako nahi dituzte. Abestiak dioen bezala, euskaldunak dira eta harro daude. Beraz, haurrak euskal ereduetan matrikulatzen dituzte.

Bestalde, Harreman eta Komunikazio Aroan gaude, honek daukan alde txar eta onekin. Soziolinguistikaren ikerketa ugari egin dira. Eleaniztasunaren garrantzia handituz doa. Etorkizunari begira, bi eta hiru hizkuntza ezagutzearen beharra nabarmen azaltzen da, bai hemen bizitzeko bai hemendik kanpo aritzeko. Gainera, bi edo hizkuntza gehiago jakiteak kalterik ez dakar, onurak baizik: eskema mentalak arintzen dira, buruko prozesuak indartu egiten dira, etab.

Euskal Herrian bi hizkuntza ditugu. Geurea dena, propio eta berezia, euskara; eta gaztelania, askoren ama-hizkuntza edo lehenengo hizkuntza. Gaztelania denok badakigu, populazioaren %100ek daki, beraz ez da galduko, bere transmisioa ziurtaturik dago. Euskara, berriz, %24k daki (azken soziolinguistika maparen arabera), bere transmisio eta jarraipena ez dago ziurtatuta, baldin eta euskaldunok zabaldu, indartu eta erabili ez; baldin eta gure haurrengan jarraipen hori ziurtatu ez. Garbi dago. Arriskuan dagoena euskara da, geurea propioa, euskaldunak egiten gaituena, beste abesti famatu batek

dioen moduan. Hona hemen eredu euskaldunetan matrikulatzeko arrazoi handi bat.

“Gaur egun garrantzitsuen ingelesa jakitea da”, diote batzuk. Eta ikasi behar izango dute/dugu, ados. Baina ingelesa jakiteak ez du gure izaera garatzen, ez baita gure hizkuntza. Hemengo hizkuntza euskara da eta ez dago gaztelania dagoen bezain bermatuta, gainera. Euskal Herrian euskaraz bizi daiteke, etxean, kalean, leku gehienetan dago. Ingelese ezin da. Euskaraz elkarrekin komunikatzen gara bertokook. Euskalduna sentitzen eta sentitu nahi dugunoi euskara beharrezkoa zaigu, maite dugulako, eta euskaraz bizi nahi dugulako. Ingelesa berriz, komenigarria da; tresna eta bidea da, besterik ez. Afektibotasun aldetik ezer gutxi. Eta hauxe da desberdintasunik handiena. Orduan eleaniztasunari baietz handia emango diogu, baina lehentasunak ezarritik.

Bideak urratuz doaz, euskararen normalkuntza martxan dago, hasiera batean euskara jakitea eta euskaraz aritzea gaztelaniaz bezain ‘normala’ izan arte, gutxie-

nez. Garai batean, beharbada, ‘normalena’ euskaraz aritzea izango da nahiz eta denok gaztelania, ingelesa,... jakin. Badira, beraz, Normalkuntzarako Plangintza duten ikastetxe zein ikastola eta institutuak. Eta Hezkuntzatik kanpo ere pausoak aurrera doaz. Iniziatiba hauek guztiak txalogarriak dira. Baina ez dute zertan profesionalen eta instituzioen eskuetan gelditu behar. Erakunde sozialek bere eragina daukate, eta beharrezkoak daude. Baina transmisio lanetan indar handiena duena familia da, eta gaur egun beraiek zuzenki nahi bai, baina ezin badute euskararen transmisioa ziurtatu, haurrak euskal ereduetan matrikulatuz erabaki ona hartu dute, behintzat. Eskertzekoa.

Pello Bidarte Perez

Hizkuntz Normalkuntzako Teknikaria. Txurdingako PAT

1999/2000 IKASTURTERAKO MATRIKULAZIO DATUAK

Ikastetxea	3D	3B	3A	2D	2B	2A
Karmelo Ikastola	31			36		
Txurdinaga	42	18		41	23	
Kirikiño ikastola	69			2 urtekorik ez dute eskaini		
Begoñazpi ikastola	75			36		
Abusu ikastola	25			41		
Pio Baroja		33	8		36	15
Birjinetxe	2		12			13
Artatse			19			6
Goya	5		13			
Lope de Vega			11			9
Briñas	21	16		36	18	
Mina del Morro		7	5		7	
Uribarri	18	10		15		
Zurbaran		24	9		28	3
Zurbaranbarri	30			27		
Angeles Custodios		14	17			30
Berrio-Otxoa	23	71				54
Ave Maria		15				19
El Salvador	23	40		11	40	4
Hijas de la Caridad		15	14			17
Inmaculada		25	18	2 urtekoen daturik ez daukagu		
S ^a Micaela				Ez dago daturik		
Vera Cruz				Ez dago daturik		
Zurbaran				Ez du daturik eman		

2 urtekoak A/D ereduetan nahastuta

2 urtekoetan B/A nahasturik

99-00 urtean B sartzen da eta A desagertu, horren ondorioz matrikulazioa hazi egin da. 2 urtekoetan gurasoen asmoak dira

GUZTIRA 364 288 127 Urte bikoetan ez da egin, nahastuta daude eta

BASTERTXU

TABERNA

Ricardo Bastida plaza

INMOBILIARIA

Gelaya

HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92
Telefonoa: 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

EMIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak, exaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponente

ANDAMIO BARIK

Telefonoa:
(94) 669 32 79
Mugikorra:
908-45 16 22

Bikoitz

ARLOPAK ★
ZILARRA ★
OPARIAK ★

Parti Arsuago SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 86 • 48004 BILBO

Otoio Mendi

Sta. Klara

Kalku

Txurdinaga Behekoa Txapelkun!

Azken urteotan Txurdinaga Behekoa-k boleibol jokalaririk eman ditu Jose Camacho: "Klubaren aurka jokatzeko zerbait egitea ia ezinezkoa da" Aurten infantil eta jubenil mailako nesken taldeak izan ditu lehiaketetan

Unai Cuevas

Mahatserrian, boleibolak, duela bederatzire urte eman zituen bere lehenengo urratsak. Gaur egun Txurdinaga Behekoaren entrenatzailea den Jose Camachok hartu zuen ardura eta lehenengo set-ak Boluetako ikastetxe

publikoan jokatu ziren. Bera, boleibol-eko jokalaria izandakoa dugu eta 2 mailako titulua lortutakoa da. Gauzak honela, boleibol talde bat sortzearen ideia Boluetako ikastetxeko gurasoen elkartean proposatu zuen eta baietza jaso ondoren gaurdaino iraun du entrenatzaile lanetan. Boluetako ikastetxea itxi egin zen eta Txurdinaga Behekoan jarraitu du boleibola irakasten.

Aurten, Txurdinaga Behekoak talde bi izan ditu konpetitzen: infantilak eta jubenilak. Eta infantilek Bizkaiko Kopa irabazi dute Zornotzako Andra Mariri 3-0 irabazi ondoren. Aipatu beharra dago talde biak neskenak direla zeren eta entrenatzaileak aitortzen duen moduan, mutilen taldea osatzea oso zaila egiten da futbolak, saskibaloiak eta eskubaloiak denak bereganatzen dituztelako. Hala ere, iaz mutilen taldea izan zuten eta han jokatu zuten hainbat jokalarik gaur egun EHU edota Sestaoko taldeetan jokatzen dute. Mutilen talde honetaz gain, iaz, Mina del Morron alebin mailako taldea egon zen eta Txurdinaga Behekoa institutuan infantil, kadete eta jubenil mailakoa ere bai. Bestetik, esan beharra dago Txurdinaga Behekoa institutuko hainbat jokalaririk Bizkaiko eta Euskadiko selekzioetan aritzen dela. Beraz, nahiko argi geratzen da maila oneko jokalaririk ateratzen direla eta boleibol hezkuntza on bat jasotzen dutela. Baina bestalde, eta jubenil mailan batez ere oso maila handiko taldeak aritzen dira. Talderik indartsuenak Sestao, Deustu, Galdakao, Durango etab. dira. Jubeniletan, Klub edo ekipo hauen aurka jokatzen dute eta zerbait egitea ia ezinezkoa da



Hona hemen, Bizkaiko Kopako txapeldunak.

Camachok aitortzen duen moduan. "Klub modura aritzea ezinezkoa da" Txurdinagako entrenatzaileak aitortu duenez eta nahiz eta ideia baloratu eta gustatuko litzaiekeen klub bihurtzeko asko exigitzen du. Beraiek, eskola

mailan aritzen dira, hau da, euren lehenengoko helburua neskatilek bere ikasketak burutzeko da. Klub-etan, aldiz, beste modu batera funtzionatzen dute: entrenamendu gehiago egiten dituzte, entrenamenduak zorroztagoak izaten dira eta helburu konkretu batzuei begira lan egiten dute. "Maila jubeniletan maila on bat lortzeko astero 14-16 ordu entrenatu beharra dago" Txurdinaga Behekoako entrenatzaileak aipatzen duen modura. Beren aldetik, azterketak direla eta, iaz entrenamendu askotan partaidetza arazo ugari izan zituzten. Honen ondorioz, aurten, astean behin eta ordu eta erdi entrenatu dute eta gainera "katxondeo modura". Entrenamenduetan, maila txikietan (alebin, infantil, kadete) boleibolean jokatzen irakasten zaie, jokuaren zentzu konpetitiboan alde batera utziz. Boleibolean irabazi edo galdu egiten da, ez dago berdinetarik eta honen ondorioz irabazteko afan psikologikoa askotan agertzen da. Jose Camachok esaten duenez: "nik neskatoei erakutsi egiten diet eta ondo pasatzen dut irakasten eta era berean beraiek ondo pasatzen dute ikasten". Gauzak honela, boleibolean jokatzen eta ondo pasatzen erakusten die Txurdinaga Beheko-ko jokalariei.

Txurdinaga Behekoako jokalaririk batzuk Bizkaiko eta Euskadiko selekzioarekin aritzen dira.

Aurtengo kopa txapelketa eskuratzeko, hasiera batean bi multzotan banandu zituzten taldeak eta multzo horietako lehenengo biek Bizkaiko fase finala jokatzen saillatu ziren. Infantil taldea, hirugarren postuan geratu zen eta beraz Bizkaiko Kopa jokatzen aukera izan zuten. Nahiz eta aurreko urteetan lehiaketa hau eliminatoria moduan antolatu aurten ligaxka bat izan da. Eta ligaxka irabazi ostean txapeldun bihurtu dira. Azkenengo partidua, sailkapeneko lehenengo bien artekoa izan zen eta Txurdinagako institutuak 3-0 irabazi zion Zornotzako Andra Mariri. Aurtengo liga azkar joan da, oso arin hasi ziren eta laburra izan da Euskadiko jokoak baitatoz. Gero, federazioek antolatutako joku edo txapelketak etorriko dira; ondoren federazio liga eta bukatzeko Euskadiko liga. Beraz, egutegia oso bete da izan dute. Kopako txapeldunen taldeko jokalaririk gehienak Maha-

"Klub mailan funtzionatzea ezinezkoa da"

tserrikoak dira nahiz eta 3 edo 4 jokalaririk Mahatserri inguruko auzoetatik etorri. Infantilen taldea 12 neska osatu dute, jubenil mailan kopuru berbera aritu delarik. Diru laguntza edo antzekoek dagokionez, talde infantilaren kamisetak supermerkatu batek ordaindu dizkie. Talde jubenilaren kamisetak, bestalde, institutuak berak ordaindu dizkie. Txandalak, aldiz, euren poltsikotik ordaindu dituzte.

Datorren urteari begira, infantil, kadete eta jubenil mailako taldeekin arituko dira. Honekin batera, oinarriari dagozkion arazoak aurkituko ditu entrenatzaileak, alebin mailatik igoko direnek ez baitira teknikoki oso prestaturik etorriko. Hiru talde izango dituzte eta "aukera konpetitiboak ez dira ugariak izango" entrenatzaileak dienez. Dena dela, eta bere lan moduarekin jarraituz boleibolak jarraipena izango du Mahatserrian eta agian etorkizunean beste talde txapeldun bat atera-

S.D. Begoña 75. Urteurrena ospatzeko atarian

Begoñako futbol taldeak 75 urte betetzen ditu aurten. Ospakizun honetarako hainbat ekintza antolatu ditu, Mallonako futbol zelaia epizentrua izango delarik. Ospakizunen ardatz nagusia, Maiatzaren 29an Artagan jatetxean ospatuko den anaitasuneko bazkaria izango da.

Kirol mailari dagokionez, jubenil eta kadeteek Santutxu, Danok Bat, Urdaneta eta Peña taldeen kontra jokatuko dute. Partehartzaileek, kopa sistemaren bidez burutuko den txapelketa bat jokatuko dute Maiatzaren 28, 29 eta

30ean. Hala ere, partidurik aipagarriena Begoña eta Athletic-en jokalaririk ezberdinez osatutako talde baten artekoa izango da. Hau, Maiatzaren 29an ospatuko da. Honetaz gain, Begoñako Ama Birjinari lore eskaintza egingo diote Mallonatik hasitako erromesaldi laburra bukatuz.

Guzti honetaz gain, S.D. Begoñak bere historiaren laburpena kontatuko duen liburu bat aterako du. Bestalde, esan beharra dago, "matsorriak" lehenengoko maila erregionaleko bigarren multzoan aritu direla aurten eta bigarren itzulian entrenatzailea aldatu ondoren jaitziera ekiditzeko borrokan egon direla.

Zuharrak lehenengo mailan mantenduko da

Tarrigonako Alforja herrian Costa Doradari 29-55 irabazi ondoren, C.D. Zuharrak-ek hurrengo urtean lehenengo mailan jarraituko du. Garaipen hau eta gero, gorpil-aulkiko sakibaloia talde honek hurrengo denboraldia prestatzen hasi beharko du. Honekin batera, gorpil-aulkiko saskibaloia eskola bideratzeaz ere arduratu beharko da.

**SARTU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA.
TEL. 94 473 54 48**



BERTOKOON EUSKARA ELKARTEA

Iturriaga 55, 1. ezk.
telefonoa. 94 473 5448
asapala@eusnet.org

MIKEL ZABALA

Mikel Zabala "Los vientos favorables" liburuko prologoan eta datu bilketan parte hartu duen santutxuerra dugu. Deustuan aro berriez ikerketa tesia burutzen dabilen bitartean, historiako irakaslea da Lauro ikastolan.

Arrate Diez

berton.- Zer da liburuan kontatzen duzuenaz?

Egia esan, liburu zahar baten beraigalpena da, duela berrogei bat urte idatzitako testuak jasotzen dira liburuan. Oraingo honetan, garai hartako beste zenbait lekukorekin batera eta tesiar berari ohar batzuk gehituz kaleratu dugun edizio berria da. Liburuaren helbururik aipagarriena oso sektore murriztutan irakurri izan diren iturriak ezagutzera ematea da. Bestean lana dokumentatzea eta egiaztatzea izan da, Gallastegitarren eta Etxebarrietarren arteko lotura 36.eko gudaren testuinguruan eta 60 etik aurrerako egoerarekin lotura jarritz. Garrantzitsuena testua bera ezagutzera ematea da.

berton.- Zelan egin zenuten liburua osatzeko dokumentuen bilketa?

Jose Antonio Etxebarrietak erabilitako iturriak kontsultatzea neri zegokidan lana izan da, Euzko Deya eta horrelakoetan topatuz.

berton.- Zenbat denbora eman duzue liburua prestatzen argitaratu arte?

Liburuaren prestatketa osoa hiru uretetan egin da, nahiz eta hitzaurreak eta oharak 96. urtetik idatzita zeuden, baina jende askoren kolaborazioak bildu ditugu eta guztira hiru urteko kontua izan da kaleratu arte. Ni, per-

"POZIK NAGO HORRELAKO LAN BATEAN PARTE HARTU AHAL IZATEAGATIK"



tsionalki, pozik nago lan garrantzitsu batean parte hartu ahal izateagaitik.

berton.- Zein da zure ustez Jose Antonio Etxebarrietaren ekarpena gaur eguneko egoera politikoan?

Berak bi korrante guztiz ezberdindu zituen, alde bate-tik, espainiar politikan parte hartu nahi zutenak, eta beste-tik, horri muzin egin ziotenak. Baina horren gainetik


eta azken egunotako gora-beherak kontuan izanik, argi ikus daitekeen bere irakaspen bat izan zela egoerak eskatzen dituen neurriak hartu behar direla.

berton.- Zer dela eta jo duzue liburua Lizarra-Garazi akordioaren aintzindaritzat?

Nire ustez, ez doa zuzenki lotuta une honetatik aurrera sortu den giroarekin, izan ere, liburuan salatzen dena EAJ-ren traizio historikoa da, ez transizio garaikoa, baizik eta Agirre-ren garaikoa.

berton.- Iruditzen al zaizu Jose Antonio Etxebarrieta euskal nazionalismoak eta ezker abertzaleak izan duen pentsalari onenatarikoa?

Garai hartako azterketa politikoen artean Krutwig-ekin batera argienatarikoa izan zela uste dut. Dena dela, nire ustez, ez da behar bezela eza-guna izan Jose Antonio Etxebarrieta eta beti bere anaiaren figuraren ondoan bigarren plano batean, eta nire ustez hori berrikusi beharko litzateke.



"Oso sektore murriztutan irakurri izan diren iturriak ezagutzera ematea"
"Neurriak egoerari egokitu behar zaizkio"

etxean eskuratu!

Bideoa.
Iraupena: 80'
1.200pzta.

Kotxe pegatina.
200pzta.

Pin-a
100pzta.



Izen-abizenak _____
Helbidea _____
Posta Kodea _____
Herria _____
Herrialdea _____
Telefonia _____
Kontu Korrantea (20 zenbakiak) ____/____/____
edo taloi bat.

ESKAERA


MATERIALA	KOPURUA	ZENBATEKOA	OSOTARA
Bideoa		1.200	
Pin		100	
Kotxe pegatina		200	
Bidalketa gastuak			+500
			OSOTARA

Bidali lehenbailehen.
Korreo: KONTSEILUA
Martín Ugalde Kultur Parkea
20.140 ANDOAIN

Faxe: 945.59.30.51



GARBITU KALEAK




ALEJORI ESKAINIA, APIRILAREN 24 AN ROMON ERAHILA, "YONKI NAZKAGARRI" BAT IZEAGATIK

ELORRITXUGANE (721 m.)

Orozkotik

Santutxuko Mintza Taldea-AEK

Orozkora (Zubiaur) heltzean, eskuin aldera abiatu gara, antzinako (San Juan) elizara eta bere ondoan dagoen hilerrira heldu arte. Hemen utzi genituen kotxeak. Hemendik irteten den pistatik hasiko da gure ibilbidea. Pista hau eroso samar igotzen da, pinudi batzuetan zehar. Pinudi honen bazterrean bizpahiru auzo txiki ikusiko ditugu. Urgordailu borobil bat, goiko aldean; apur bat geroago beste pinudi baten sartuko gara eta irteten garenean, ezker aldean pagadi handi bat eta eskuinean pinudi gazte bat ikus ditzakegu. Hemendik jarraituz beste pagadi batera helduko gara (sartu baino lehen ezkerretik eta atzerantz Santa Marina basilizara eroaten gaituen pista igoten da). Zuzen abiatuz lepo handi batera heldu arte, hemen ere bidegurutze bat aurkituko dugu. Ezkerreko bidea Jesuri mendira doa, baina gure helburua Elorritxuganera heltzea izan zenez, eskuineko pista hartuz muino batzuk pasatuz eta ordu laurden baten tontor gainean egongo gara. Ibilaldi hau ordu bat eta erditan egin daiteke.:



OHARRA
Orain Santa Marina basilizaren ondoan aterpe berri bat dago oso handi eta lasaia da.

HOROSKOPOA

Aries: Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra. Izarrak zure alde egoteak ez dizu dena konponduko; zeuk ere borondate pixka bat jarri beharko duzu. Busti dezala eperdia arraina nahi duenak!

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra. Exekutibo baten pare zabilta handik hona geldi ezinik, gutxienez emaguzu zure mobilaren zenbakia.

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra. Glu, glu, glu; bizitza edatea baino zerbait gehiago da. Zaindu ezazu zure gorputza eta burua.

Cancer: ekainaren 21etik uztaiaren 20ra. Dirua, maitasuna, sexua, goxokiak, hondartza, larre berdeak, ur freskoa... Riiinnng!! Lanera. Edo eskolara, edo institutara, edo unibertsitatera, edo...dena delakora.

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 20ra. Tipi-tapa, tipi-tapa, tipi-tapa; horrela bai helduko zarela gailurrera, baita gorago ere!! Ez zarela mendigoizalea? Horrek ez du axola motel.

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra. Lur jota zabilta aspaldian. Ispiluan begiratu beharko zinateke noizbehinka... Animo! Zoragarria zara eta hori da garrantzitsua, ez?

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra. Buruan duzun korapilo izugarri hori hitz bakar batekin definitu daiteke: maitasuna.

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra. Laster dator asteburua! Laister datoz jaiak! Laister datoz oporrak! Eta uda!...Beti berdin, noiz hasiko zara egunean egunkoa bizitzen?

Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra. Baliteke zure arazoa izakera kontua ez izatea, eta behar duzuna "look" aldaketa bat izatea (itxurak kezkatzen bazaitu behintzat).

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra. Egunean zehar gauzak patxadaz egin ahal izateko ezinbestekoa da gosari bapoa egitea, ez ahaztu: fruta, esnea eta zerealak.

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra. Ikusten al dituzu urrunean dauden hodei beltz horiek? Ba zugana datoz zuzen-zuzen eta ekaitza ez da makala izango.

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra. Zure poztasunak ingurukook pozten gaitu. Hau da poza, pozaren poza. Poztasuna beti poztasun eta gu, zure alboan beti pozik.

agenda

- Ekainaren 20an Trinidad Iturgoien mendira irteera (1.237 m.) Santutxu Mendizale Elkartearen eskutik.
- Ekainaren 20an mendi irteera Eguzki Lorea Boluetako Mendi Taldeak antolatuturik, Trutzios-tik Jorrios eta Armiñonera.
- Ekainaren 25an akelarre jaia Otxarkoagako Kortatxuetan, Pa...Ya-k antolatuturik. 8etatik aurrera afaria, akelarrea eta jaia.

*JAIK:

- Ekainak 11: Erandio
- Ekainak 13: Abadiño-Urkiola, Erandio-Martiartu
- Ekainak 23: San Juan gaua herri guztietan
- Ekainak 24: Galdakao-Urreta, Leioa-Elexalde, Portugalete-San Juan, Sondika, Muskiz.
- Ekainak 29: Dima, Durango-Tabira, Mundaka, Sestao-San Pedro, Sopela, Mungia.



Nolako zinen Bilbo?

Arkaitz Estiballes
(Manuel Lekuona bertso paper lehiaketan lehen saria)
Doinua: Biribila da lurgaina


Nolako zinen Bilbo?
Nolako antzina?
Nork eman dizu mina?
Non da nik maitatu nuen emakume zikina?
Nork jantzi dizu soinean setazko jantzi fina?
Ta zergatik jakina?
Maiteko zintuzket lehengo puta zaharra bazina?

Barkatu mintu bazaitut ta ez ego penetan baina une honetan neure mina zeuk ulertu bazeneza benetan!
Zoriontsu izan nintzen zurekin urteetan, ona zinen gauetan ametsak egi bihurtzen hiru mila pezetan.

Belarri ertzera berriz nahi nizuke kantatu ltoizen "Lau teilatu" ta gero Cortes kaleko zure ohean sartu; hala ere ikusirik nola zaren aldatu ausardia barkatu baina orain ezin zaitut lehen bezala maitatu.

Punta batean Zorrotza, beste puntan Bolueta, ta zeharka erreka, eder ikusten al zara zubi berriz beteta?
Haragiak estutzeko jantzi duzun korseta aska zazu tarteka, laztana, arnasa hartzen ez dizu uzten eta!

Zure itsasadarretik dator ohio ozena han zeuden enpresena gorputza saltzen ohituta saldu al duzu sena?
Ibaiaren ispiluan begiratu zarena, non dago lehen zinen? Merkeegi saldu duzu garestia ez zena!



Zure izara arteko langile izerdia lurrundu da erdia non dago lehen Euskalduna izan zen lantegia?
Orain haren lekuan da luxuzko jauregia, ezta ederregia gure diruaz ordaindu dizuten zirugia.

Burdin gorria hoztu da, gelditu da galdara,

isildu mailukada, lekua lapurtu die titanioak jada; laztana non dago izan zinenaren islada?
Zimurtzen ari zara nahiz ta aurpegian jarri gazte baten maskara.

Hollywoodeko izarra, torero ezaguna, enpresari lizuna,... aberatsa dena soilik duzu ohelaguna, txanpainaz sinatu arren betiko maitasuna edo fideltasuna hirugarren egunean ihes doakizuna.

Zeuren txanpaina legez gorantz zara igo, ametsetan bizi, baina esnatzerakoan lurrerat astiro; nahiz ta zu gorrotatzeko dudan mila motibo aitortzen dizut Bilbo... zure altzoan lokartu nahi dudala berriro.

Noizbait esnatzen bazara lozorrotik agian, lagun baten premian, etorri ta aurkituko nauzu ohiko tokian, lehenengo zirriak egin genituen aulkian, gau hotzaren erdian, ardo botila batekin kartoi baten azpian.